

PATXI UNZURRUNZAGA
(1906-1984)

Egilea:

IMANOL UNZURRUNZAGA

OROITZAPENAK

Eskuak tintaz, kaxetatik gillotinara, minervatik planara, tailerrean buzoz, bulegoan dotoretsuago; lantegitik irten eta lankideekin tertulia...; uda partean itsasoa, neguan mendia... hauexek ditut Patxi Unzurrunzagari buruzko lehen oroitzapenak. Gerraondo hurbila zen, 40ko hamarkadaren lehen urteak. Ordurako bazituen urte batzuk Itxaropenak.

Patxi Unzurrunzaga Donostian jaio zen 1906. urtean. Gazterik hasi zen inprenta-lanetan Donostian, Diputazioko inprentan. Handik Zarautzera etorri zen. Editorial Vasca-n urte batzuk egin ondoren, hiru laguneren artean (Alkorta, Illarramendi eta Unzurrunzaga) sortu zuten 1932an Itxaropena. Laster Patxi Unzurrunzagaren esku geratu ziren inprenta eta editoriala. Gerra aurretik euskaraz eta erdaraz liburu mordoxka polita eman zuen argitara Itxaropenak, euskal kulturaren arlokoak denak: Txomin Agirreren *Garoa*, Orixeren *Barne muiñetan*, Zaitegiren *Tori nire edontzia*, Joxe Migel Barandiaranen *Euskalerriko leen gizona...*, Arturo Campionen *Blancos y negros*, *García Almoravid*, *El*

Genio de Navarra eta *Narraciones baskas*, Joxe Migel Barandiaranen *El hombre primitivo en el País Vasco*, Manuel Lekuonaren *Literatura oral euskérica* eta abar. Beñat Idaztiak argialetxearen Egia Sorta-rekin 1934an hasi ziren. 1936ko gerra zitalak errotik birrindu zituen hainbat asmo, hainbat ilusio. Euskal letren loraldi oparoaren



Patxi Unzurrunzaga (1906-1984)

egunsentia zirudiena gerrak eta gerra galduaren oste luzeak ilundu zuten.

2 Euskal idazle askok hartu behar izan zuen erbesterako bidea. Patxi Unzurrunzagak —familia aurrera atera behar eta— Zarautzen geratzea erabaki zuen; erabaki latza, eztabaidatsua eta arriskuz betea izan zen. 1939an bosgarren semea jaio zen Itxaropenanean; zaharrenak (Jesus Mari) artean zortzi urte. Garaitsu hartakoak izan ziren etxean eta tailerrean abisurik gabeko bisitak, errekisak, mehatxuak, deklaratzera deiak, salaketak, liburuak eta orriak nonbait ezkutatu beharra, euskal usaineko edozein paper puska ere subertsioztat hartzen baitzen... Gogoan eta begietan itsatsita geratu zait *Sabin euskalduna*-ren azaleko irudia: goardia zibilen aginduetara gilotinaz liburu koloretsuak ehunka birrintzen eta gu ikaraturik aitari erantzunik gabeko galderak egiten. 40ko hamarkadaren lehen urteak ziren. Gero jakin ahal izan genuenez, tailerreko zuloren batetik ateratako liburu-pakete izkutuak ziren. Bernardo Estornes Lasak eman

dizkigu bere oroitzapenetan liburu honen zehaztapen gehiago: gerra aurreko ikastolen mugimendua gorantz zihoan; Isaac Lopez Mendizabal-en *Xabiartxo* agortuta, *Sabin euskalduna* prestatu zuten Bernardo Estornesek eta Agustin Zumalabek munduko ilusiorik handienaz. Azala koloretan Txiki-k diseinatua eta marraztua, liburu barneko maketazioa eta marrazkiak berdez eta beltzez Santos Etxeberriarenak dira. Liburu benetan dotorea irten zen Itxaropena inprimategitik eta handik urte gutxira Itxaropenan bertan birrinduta amaitu.



1914ko abuztuaren 9an ama hil zitzairen. Argazkian, neba-arreben erdian Patxi (7 urte) aita alargun berriarekin



Zabalkunde Sorta, gerra aurreko loraldiaren ezaugarri

1940-1950: KONPETENTZIARIK GABEKO URTEAK

Jende asko erbesteratu zen urte haietan. Erbesteratuekin batera euskara eta euskal kultura ere neurri handi batean erbesteratu egin ziren. Imprenta Icharopena-k —jada ez zen Itxaropena inprimategia— Zarauzko Santa Marina auzoko Victor Pradera kalean jarraitu zuen, nola-hala geratu ziren euskaltzaleen bilgune: Azkue, Orixe, Lekuona, Labayen, Erkiaga, Etxaide, Jautarkol, Nemesio Etxaniz, Laffitte, Koldo Mitxelena, Krutwig, Lino Akesolo, Salvatore Mitxelena, Santi Onaindia, Artetxe, Placido Mugika, Anizeto Zugasti, Romualdo Galdós,

Basarri... —joanen artean ezagunenak aipatzearren— eta beste hainbaten bilgune eta atseden-leku klandestino izan zen urte horietan makina bat aldiz Itxaropenako bulegoa eta tailerraren aldameneko baratzean aitona Patxiren «txabola».



Sabin euskalduna, ikastola jaioberrirako argitaratu zuten. Handik urte gutxira gillotina zigorra ezarri zioten



Unzurrunzaga sendia, 1946

Luma-sorta bikaina. Idazle jakintsu eta esperientzia aberatsekoak biltzen ziren Patxi Unzurrunzagarekin «buelta noiz etorriko», euren dohainak erakusteko Herri Askatuaren irrikan. Euskaraz idatzi ahal izateko euskararen herritik erbesteratu beharra zegoen. Hemen, euskal arrastorik zuen hitz bat bera ere ez. Franco-ren aurreko hogeitun urteetan 593 liburu argitaratu ziren euskaraz; Franco-ren garaiko lehen hogeitun urteetan 278ra jaitsi zen euskal liburugintza. Erdirik ere ez. Urteak aurrera, euskal kultura atzera...

GIROA

Juan Mari Torrealdaien *El libro negro del euskara*-tik urte haietako perla pare bat aldatuko ditut hona orduko giroaz apur bat jabetu dadin irakurlea.

1947an euskara debekatuz agindu hau bidali zitzaien gure gobernu zibiletatik orriren bat euskaraz publikatzera ausart zitezkeen aldizkariari:

«Prohibido el uso del vascuence en las revistas.»

«Por orden de la superioridad queda terminantemente prohibido el uso del vascuence en esa publicación de su digna dirección.»

«Lo que comunico para su...»



Aitona Patxi eta Agustin Frantsesa-rekin Txabolan

6

Besteak beste, aldizkari «subertsibo» hauei igorri zitzairen agindua: *Boletín Acción Católica de la mujer, Luises obreros, Santísimo Rosario, Aránzazu, San Antonio, Misiones Franciscanas...*

Hilerrietako euskarak ere min egiten zien askori, nonbait, eta hango presentzia ixil eta baketsua ere ezabatu beharra zegoen. Riestra jaunak, Bizkaiko gobernadore zibilak, 1949ko urriaren 27an emandako agindua V. Rojok, Gernika eta Lumoko alkateak, 1949ko azaroaren 2an (azkar asko, alajaina!) indarrean jarri zuen. Honela zioen Gernikan plazaratutako ediktuak: «...se requiere a los familiares y propietarios de las tumbas y panteones donde figuren inscripciones en vascuence, para que sean retiradas las losas y sustituidas las citadas inscripciones por otras en castellano...»



ENBOR BEREKOAK

Bertokoak ziren zitalenak, Ministerio de Prensa y Propaganda delakoarentzat gure probintzietako ordezkartzetan lanean zihardutenak, alegia. Hemengoak ziren, sarritan euskaldunak, zur bereko ezpalak. Dotres eta Ugarte ditugu euskal ezpaleko eredu urte haietan. Donostian Espainiako Información y Turismo-ko ordezkari leial eta zintzoa izan zen Ugarte jauna, aldi luze bateko euskal idazle, editore, inprimategi eta liburu-denden begirale zorrotza, askorentzat mamu beldurgarria. Handik urte gutxira Donostiako alkategoaz saritu zuten Ugarte jaunaren zerbitzu leial eta jatorra.



Zeruko mana gozoa eta Argi donea, gerra aurreko dataz 40ko hamarkadan berrargitaratuak, laguntza handikoak izan ziren kristau-euskaldun askorentzat

Zentsura izan zen eguneroko amets gaiztoa Patxi Unzurrunzagarentzat urte askotan. Eta ametsa zigor, isun, mehatxu, bisita, liburu bahitze bilakatu zen behin baino gehiagotan.



Dotrina-liburuak ezinbestekoak ziren hainbat herri euskaldunetan gaztetxoek katekesi-hezkuntza aurrera eramateko

1940ko hamarkadan euskal argitalpenen bat prestatzekotan tranpaz eta gezurrez jokatu beharra zegoen. Hala irten ziren Itxaropena inprimategitik gauzez eta klandestinoki, inprimatzeko lizentzien data faltsuaz edota datarik gabe zenbait eliz liburu: *Zeruko Mana gozoa* A. J. A. Ugarterena, *Argi Donea* Baltzola'tar Prantziskorena eta kristau-ikasbiderako liburukiak... Katekesi eta liturgiarako ezinbestekoak ziren herri askotan eta apaiz-talde batek euren kontzientziaren gain hartu zuen legearen aurka jokatzeko arriskua. Don Eduardo Ryan-ek, Durangoko klarisen kapilau prestuak, merezi du hemen aipamena errespetuz, esker onez eta miresmenez.

8

G. Mugikaren *Pernando Amezketarra* (4. argitaldia) ere, inongo data-arrastorik gabe, urte hauetakoa dugu. Euskal liburugintzaren historian eta katalogoetan ez dituzu argitalpen hau eta beste hainbat aurkituko. Inprimategiko kaxetan eskuz, letraz letra konposatutako liburuak inprimatzen zituen urte horietan ltxaropenak. 40ko hamarkadaren amaieran sartu ziren berun urtuzko Typographe eta 50ekoan Linotipea.

Gero etorriko ziren litografia, fotokonposizioa, ordenadoreak... 1940aren inguruan ezin ziren, beraz, aurrez inprimatutakoen moldeak (are gutxiago argazkiak) gorde eta hurrengoan erabili, kaxak etengabe berronitu beharra zegoelako. Argitalpen «pirata» berria kaxistek berdin-berdin egin nahi izan arren, bibliofilo azkarrak harrapatuko du han-hemen edizio bereko eta urte bereko agertzen diren liburuotan desberdintasunik.



Agintari espainiar irabazleen kontra eta legez kanpo jokatu behar izan zuten zenbait apaizek kristau-herriaren alde. Don Eduardo Ryan eta don Jaime Kerexeta nabarmendu ziren, besteak beste, ahalegin honetan. Argazkian, Zarauzko munoan Patxi Unzurrunzaga eta Basarriekin

1947ko irailaren 9an gertatu zen «miraria». Zarautzen uda igarotzen ari zen Pedro Rocamora jauna, Espainiako Prentsa eta Propaganda zuzendari orokorra. Patxi Unzurrunzagak pentsatu zuen hemengo morroiek baino ankerrago inola ere ezingo zuela jokatu eta beragana jo zuen zuzenki, behingoz bitarteko probintzianorik gabe, poema erlijioso eta folkloriko batzuen argitalpen-lizentzia eske. Joxe Artetxe eta biok joan ziren. Eta hara non, Rocamora jaunak entzun, ulertu,



Nikolas Ormaechea, Orixe erbestetik itzuli bezain pronto jarri zen Patxi Unzurrunzagarekin harremanetan

onartu eta, aspaldiko partez, euskal argitalpenei zirrikitua zabaltzen dien, gutxien espero zen une latz hartan. Artetxek kontatu digu sinestezina egin zitzaie la biei han ikusi eta entzundakoa; kalera irten aurretik, emozioari eutsi ezinik, etxe hartako portalean besarkada estu-luzean lotu ziren Joxe eta Patxi hitzik esan gabe. Arantzazuko Amaren eguna zen (irailak 9). Garai hartan Euskal Jaia Zarautzen bakarrik ospatzen zen, egun horretan hain zuzen. Euskal jai-giroak ukituko al zuen, agian, Madrileko jaun ospetsua? Nolanahi izanik ere, baimen honi esker publikatu ahal izan ziren Bera-Mendizabalen *Euskal-erdel Iztegia* (1948), Salvatore Mitxelenaren *Arantzazu Euskal Poema* (1949) eta Orixeren *Euskaldunak* (1950). Rocamoraren lizentzia hemengo zentsura guztien gainetik zegoen. *Zazpirak bat* atala, ikur eta guzti, agertu zen Orixeren *Euskaldunak* poeman. Benetan, sinestezina! Gerra ondoko euskal argitalpenen lehen urrats sendoak ziren.

Desertu luzean oasis bezala, giro zakar beltzean haizealdi leun, garbi, berria. Garai hartako prentsan apenas aurkitu ahal izan dugu oihartzunik; aipamen xume batzuk, gehiegizko pozik adierazi gabe, badaezpada ere.

KULISKAREKIN AMETSETAN

Euskal liburu-sortaren lehen urratsak gerra aurretik eman ziren Itxaropena-n baina fruitu umorik ernaltzeko astirik gabe izoztu ziren asmoak eta ametsak. Urte luzeetako gau ilunaren ondoren argi printzatxoa sumatzen zen 1950eko hamarkada hasieran tunelaren beste muturrean. Arretaz, ilusiorik handienaz, inor asaldatzeko ikaraz ekin zion Patxi Unzurrunzagak bere bizitzako ametsari, Kuliska Sorta-ri. Mimos tratatu ondoren hezurmamitzen ziren liburu-sortako aleak banan-banan, pausoz pauso Itxaropena-n: lehenik, originalen aukera oso delikatua zen, susmorik txipiena ere sortarazi behar

ez zuena, inor minduko ez zuena; auto-zentsura, Espainiako zentsuraren baimenak... gero etorriko ziren folio zirriborratuak, kaxa, linotipia, probak, galeradak, egilearen jorratze-lanak, bigarren probak, maketazioa, inprimaketa, pleguak tolestu, itsatsi, josi, estalkiz jantzi, argitara eta plazara... ume jaioberria bailitzan ospatzen zen alerik ale aitonaen «txabolan» Kuliska Sorta-ko titulu bakoitza, zarata handiegirik gabe, badaezpada.



Kaxa hustuak etengabe berronitu behar ziren. Argazkian, Itxaropena inprimategiko kaxa-saila



Arantzazu Euskal Poema eta Euskaldunak, gerra ondorengo euskal liburugintzan lehen urratsak

Bildumak literaturako esparru desberdinak bete nahi zituen: olerkia, nobela, entsegua, antzerkia, bertsolaritza, historia, atzerriko obren itzulpenak, berrargitarapenak... 1973an plazaratu zen azken alea, 76. zenbakia, S. T. Rekalderen *Idahon artzain eta euskaldun*. Ordurako jada gauzak aldatuz zihoazen eta konpetentzia pizten.

NONI ETA MANI

1952an irten zen Kuliska Sorta-ren lehen alea, *Noni eta Mani*, Svensson-en nobelatxoak Aita Plazido Mugikak euskaratua. Svensson jesuitaren obrak berrogeita hamar hizkuntzatarara itzuli ziren eta idazle ospetsuaren ilusioa zen Inazio Loiolakoaren hizkuntzan ere ikustea bere nobelaren bat. *Noni eta Mani* aukeratu zuen, Plazido Mugika erlijio-kide, lagun eta euskaltzale jakintsuak euskarara itzul zezan.

11



Gerra osteko basamortuan oasi gisa izan zen Kuliska Sorta euskal idazle eta irakurleentzat

Ibiñagabeitia'tar Andima'k *Euzko Gogoa*-n egiten dio ongi etorria Kuliska Sorta-ko lehen aleari: «Aunitz urte igaro ditugu, bai, Muxika'tar Palgida aitak itzulpen ori burutu zunetik! Aitzol'ek "YAKINTZA" aldizkarian 1935'grn. liburutxo ori irarriko zuela iragarri zigun. Aitzol izan zenuten aurrenekoz itzulpen ortaz mintzatu zitzaiguna...»

«...Bidenabar, Itxaropena Argitaldariari ere gure atsegiñak agertu nai genizkioke. Bakarra zaitugu Euskadi osoan irar-lanean. Txukun aski datoz zuen lanak begi ta biotz pozgarri...» (Parisen 1952).

Handik aurrera, urtean bizpahiru izenburu kaleratuko zituen Kuliska Sorta-k, batzuk besteak baino mardulagoak, eginagoak; denak ganbaran umotutako madari zimelak bezala hartuak, dastatuak eta gordeak, garai hartako euskaltzaleen eskutan. Berrehunetik hasi eta bostehunen bat izatera iritsi omen ziren harpidedunak: «Basamortu honetan oasiaren pare izan da —diosku J. M. Torrealdaik— "Kuliska sorta" liburu-saila 1952an martxan jartzea. Itxaropena da urtealdi osoan euskal liburu gehien inprimatu duena, eta zer esanik ez lehen aldian».

Gaurko ikuspegitik hutsaren hurrena dirudi urtean bizpahiru titulu argitara ateratzea baina kontuan izan behar dira orduko baldintza latzak, gabezia ikaragarriak, euskararen presentzia eta prestigio eskasa.

Kuliska Sorta-k plazaratutako 76 zenbakietatik, azpimarragarrienak soilik aipatuko ditut jarraian, 1950etik 1960ra doan hamarkadakoak bereziki, gerra osteko euskal liburugintzaren lehen urratsak, alegia.



JON ETXAIDE (1920-1998)

Kulixka Sorta-ren historian aipamen berezia merezi digu Jon Etxaideren obrak: *Joanak joan* (1955), *Hamasei seme Euskalerriko* (1958), *Itxasoa laño dago* (1959) ditugu idazle honen emaitza bilduma jaioberrian. Eta Kuliska Sortako-ez gain, Etxaidek beste hainbat plazaratu zuen urte haietan, hala nola, *Alos Torrea* (1950), *Purra-purra* (1953), *Pernando plaentxiarra* (1957), *Gorrotoa lege* (1969) eta zenbait antzerki-lan. Itxaropenak argitaratuak denak, Patxi Unzurrunzaga eta Jon Etxaide adiskideak eskuz-esku, elkarrekiko laguntzan eta nolabaiteko konplizitatean.

Hogeita bat hilabeteko tramite luzea jasan zuten Etxaidek eta Patxi *Purra-purra* ipuin liburuxka xaloa argitaratzeko lizentzia lortzen, ipuin «lizunak» omen zirela eta. *Joanak joan*-ekin urtebetez (1955) ibili ziren berriro borrokan Información y Turismo-koekin. Liburuak hitzez hitz itzuli behar ziren gaztelaniara, zentsura gaindituko bazuten.

Jon Etxaide dugu gerraondoko euskal idazleen aitzindari eta gero etorriko diren askoren maisu eta eredu. 1920an jaioa, idazten hasi orduko giroa gaiztotuta zegoen erabat, «urte zailak ziren» aitortzen du berak. Autodidakta, langile porrokatua, zorrozki landu eta zaildutako luma. Etxaideren nobela historikoentzat erakustoki aparta izan zen urte haietan Kuliska Sorta.

13



Itxaropena argitaldariko langileak Patxi Unzurrunzagak 1950ean egindako argazkian. Erdi-erdian, «ugazabaren ordezk», Mari Tere, etxeko txikia

Joanak joan, Pierre Topet Etxahun Barkoxeko koblari eta poetari omenaldi gisa idatzitako biografia nobelatu aparta dugu. Euskaltzaindiaren nobela-saria jaso zuen eta euskal nobelagintzan mugarri izan zen. Egileak «Elaberri giristinoa» definitu arren, garai hartako «euskaldun fededun» garbizale eta integrista zenbaitentzat mugarri barik eskandalu-harri izan zen. Nobelan deskribatzen den amodiozko pasadizoren batengatik arazoak izan zituen, nork eta Jon Etxaidek, fedegizon prestu eta konprometituak. Atzerrikoek baino min handiagoa egin zion idazleari aberrikoen zentsurak. Kuliska Sorta-ren harpidetza erretiratu ere egin zuen batek baino gehiagok, euskara elizatik kanpo *Garoa*-z eta *Kresala*-z soilik jantzita nahi zutenek.

Arantzazu aldizkaritik (1956, XXXVIII, 368) atera ditugu A. I.-k Etxaideren nobelari egindako goraiapamen luzearen azken lerro hauek: «...Gauzak argi ta garbi esaten ditu. Gordiñegi batzutan? Bai, alaxe da. Ao zabaltxoa izan du noizean bein. Baño alare garbi ibili da beti. Gordin, baño garbi...»


Etxaidek bere izen onaren defentsan A.I.-ri erantzunez idatzitako artikulutik ere lerro batzuk bakandu ditut: «...Nere helburua elaberri hau mamitzean, egiazko erlesiñoaren sustraia, erroa eta funtsa maitasuna dela adieraztea izan zen...»



Joanak joan eleberriarekin euskal nobelagintza modernoaren ildoan urratu zuen Jon Etxaidek

SALBATORE MITXELENA (1919-1965)


Jon Etxaide baino urtebete eskas lehenago jaioa zen Zarautzen Salbatore Mitxelena. Salbatore ere gerra osteko lehen belaunaldiko idazle bakanetakoa dugu. Saiakera, *Unamuno eta Abendats* (Baiona, 1958), historia *Ama-semeak Arantzazuko kondairan* (1951), antzerkia *Confixus* (1977) landu zituen baina, batez ere, olerkari bezala da gaur egun euskal literaturan ezaguna. *Arantzazu Euskal Poema*-z gain olerki-bildumak utzi zituen han-hemenka. Batzuk galdu ere egin dira Salbatoreren urruti-minezko ibilaldi luzeetan. Kuliska Sorta-k 1955ean *Arraun ta amets* argitaratu zion.



Salbatore eta Patxi aspaldiko lagun zahar minak

Salbatore Mitxelena eta Patxi Unzurrunzaga lagun minak ziren gaztetatik. Itxaropenak inprimatu zizkion garai haietan Hegoaldean argitara zitezkeenak. Eta La Chau de Fond-en, Suitzan langile espainiarren kapilau, 1965ean hil zenerako agindua emana zuen Salbatorek —lerro hauek idazten ari denari, hain zuzen— publikatu gabe uzten zituenak Patxi Unzurrunzagaren eskuetara helarazteko, honek jakingo zuela-eta beste inork baino hobeto, idazlearen ustez, noiz eta nola argitara eman. Salbatorek agindutakoa ez zen bete, Patxiren disgustu handiz.

15




Txomin Agirreren *Kresala* eta Lizardiren *Biotz begietan* klasikoak dira gaur. 50eko hamarkadan, kontuan hartuta gerra aldiko etena eta ondorengo lehortea, modernoak ziren oraindik. Lizardi 1933an hil zen 37 urtez; Txomin Agirre 1920an. Agortuta zeuden haien liburuak eta ezer gutxi idatzi zen 40-50eko urteetan nobela zein poesiaren arloan. Lizardi eta Agirreren obrak agortuta ez ezik zigortuta ere bazeuden, erreta, birrinduta, desagertarazita, gerra ondoko urte hurbiletan euskal liburu bat etxean susmagarria zelako, beste gabe. Kuliska Sorta-k goi mailako hiru harri bitxi atera zituen lehen urteetan katakonbetatik argitara. 1954an *Kresala* (3. edizioa), 1956an *Biotz begietan* (2. edizioa) eta Joan Antonio Moglek XIX. mende hasieran idatzitako *Peru Abarka* (4. edizioa). Irakurleak maiatzeko euri mardula bailitzan egarriz hartu zituen hirurak.



CELA, HUGO WAST, HEMINGWAY

Camilo José Celaren *Pascual Duarte* irakurri ahala sortu zitzaion Patxi Unzurrunzagari liburu hau Kulixka Sorta-ren apaletan ikusteko irrika. Erbestetik itzulita Zarautzen erdi erretiratuta bizi zen urte haietan, moja karmeldarren kapilau, Jauregi'tar Koldobika, *Jautarkol*. Itzulpen-lan bikaina burutu zuen. Argitaratzeko baimenarekin 1967an Cela-k lerro hauek idatzi zizkion Unzurrunzaga jaunari: «Me ilusiona imaginarme a mi Pascual Duarte vestido, algún día, con el viejo y noble ropaje de la lengua eúskara.»





Gerra aurreko literatura ere berrargitaratu beharra zegoen



Handik urte batzuetara ere Jautarkolen lana gorai patua izan da. Euskal itzulpengintzaren historian lan eredu garrien artean geratuko da. *Pascual Duarte*-ren euskal bertsoak Kuliska Sorta-ren 62 zenbakia egiten du. Onerako edo txarrerako, euskaratik euskara batura itzultze edo moldatzearen ohorea merezi izan duten gutxitariko bat dugu.

Paskual Duarte baino lehenago, 1956an argitaratu zen Hugo Wast-en *El camino de las llamas* euskarara Itunbek (Iturria, Unzurrunzaga, Berasaluze) itzulita: *Bide izkutua*. Hemen ere egileak ilusioz eskaini zituen euskal bertsiarako erraztasun guztiak Aita Villasanteri egindako gutunean: «... Pocas cosas en mi carrera de escritor me han halagado tanto como la traducción al vasco de una novela mía, por lo mucho que quiero yo a a ese gran pueblo del cual desciendo por parte de madre (Zubiria)...»

Aurrekoen antzeko jarrera adeitsua eta ilusioz betea erakutsi zuen Hemingway idazle ospetsuak bere *The man and the sea*, euskarara (*Agurea eta itsasoa*, Kuliska Sorta-ren 52 zenbakia, 1963) itzuliko zela jakitean. Lagun onak omen zituen Estatu Batuetan eta La Habanan euskaldunen artean, errefuxiatuak, artzainak, pilotariak eta erbesteratutako apaiz abertzaleren bat ere.



Pascual Duarte «euskal txapelaz» jantzita ikustea ilusio handia izan zen Camilo José Celarentzat

Kuliska Sorta-ren eta P. Unzurrunzagaren zuzendaritzapean meritutzat jo dezakegu, halaber, gerraondoko idazle belaunaldi berriari ateak zabaltzea. Hor ditugu, besteak beste, San Martin, Sorarrain, Garayalde, Itunbe, Ugalde, Peillen, Gereño, Rekalde... Arestiren *Harri eta Herri*-k ere Kuliska Sorta-ren 55 zenbakiarekin ikusi zuen lehenengoz argia 1964an. Urtebete lehenago Tolosan Loramendi saria irabazi zuela-eta, Patxi Unzurrunzagak zorionak ematerakoan Arestik azaldu zion zorionik handiena Kuliska Sorta-n tartetxo bat berari egitea izango zatekeela.

Kuliska Sorta-tik kanpo ere Itxaropena argitaldariari esker irten ziren sona handiko beste zenbait obra urte haietan. Gehien espero zirenak soilik aipatzeagatik, 1949an *Arantzazu Euskal Poema*, 1950ean *Euskaldunak*, 1952an Emeterio Arreseren *Olerki berrizte*, 1954an *Gero eta Mila Euskal Olerki eder*, 1955ean Zaitegiren *Bidalien eginak* eta Umandiren *Gramatika*, 1956an *San Agustinen Aitorkizunak* Orixek euskaratuta... Txilardegi literaturan hasi berria zen Itxaropenaren eskutik *Peru Leartzako* 1959an plazaratu zuenean... Ezin denak aipatu.

Euskal kulturaz kanpoko deus ez zuen argitara eman Itxaropenak, inprimatu ere ezer gutxi 50etik aurrera. Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekan Itxaropenak argitaratutako liburuen katalogotik ateratako datuak dira ondokoak: 1950etik 1960ra laurogei obra daude biblioteka honetako zerrendetan Itxaropena argitaldariak izenpetuta; berrogeita hamasei euskaraz, hogeita lau erdaraz. 1961etik 1970era berrogeita hamabost; hauetarik berrogeita lau euskaraz eta hamaika erdaraz. Katalogo honetan agertzen ez diren beste zenbait ere badira urte horietan Itxaropenak argitaratuak.

Argitaratze bakoitzak ditu bere istorioak eta bere istiluak, inprimatu aurrekoak, bitartekoak eta ondorengoak.



LIBURU BAHITUAK

Orain arte azaldutakoaren ildotik xelebrekeria batzuk ere badira tartean, gaurko irakurlearentzat barregarri, agian, baina bere garaian min handia eragin zutenak. *Mila Euskal Olerki Eder* Santi Onaindia karmeldarraren bildumak arazoak izan zituen kaleratu orduko, Sabin Arana Goiriren olerkiren bat ere «infiltratu» omen zuelako. Edizioa irten bezain pronto hasi ziren salaketak, errekisak, miaketak, mehatxuak eta zigorrak nonahi. Komentuetan eta baserrietan gorde

ezin izan ziren liburuak bahitu egin zituzten eta ez zen arrastorik ageri inondik. Handik urte batzuetara, Donostian Información y Turismo-ko bulegoetan garbiketa-lanak egiten zituen emakumea etorri zitzaientzen Amarako fraide karmeldarrei euskaraz inprimatutako liburu mardula eskuan, bere ardurapeko sotoetan horrelakoak paketeka pilatuta eta inoren kontrolik gabe zeudela esanez. Bana-banaka berriro bildu zituzten ehunka liburu bahituak. Aleko ogerlekoa ematen zioten garbitzaile elizkoiari eta denok pozik.

19



Liburuak ere bahituak, kartzelatuak, erbesteratuak eta gillotinatua izan daitezke

Antzeko zerbait gertatu zitzaion Antonio M. Labaienen *Escenas papeleras*, Tolosako papergintzaren historia kontatzen digun liburuari, Itxaropenak 1947an argitaratua hau ere. Gerra aurreko lan-giroa hobesten zuelako eta batez ere 1936koari «guerra» deitzen ziolako liburu hau saltokietan bildu eta bahitzeko agindu zuten. Izan ere, hura ez zen gerra izan, «krutzada» baizik eta akats semantiko honek ondorio larriak ekarri zizkion bati baino gehiagori. Nolanahi den ere, Labaienen *Escenas papeleras* Información y Turismo-ko sotoetan paper-ontzietara kondenatu zuten eta handik urte batzuetara paperaren pisuaren prezioan saldu zitzaizkion trapu-saltzaileari liburuak txukun-txukun paketeetan bilduta. Oraingoan Manterola bibliofilo bizkorrak hartu zion arrastoa eta merke asko berreskuratu edizioa oso-osorik.

G. Muxikaren *Pernando Amezketarra* (1948an) plazaratzeko lizentzia guztiak lortu zituztelakoan inprimatzera animatu ziren. Lizentzia idatzia ez, ordea, iristen, Madriletik baimenaren agiri idatzia bidali izana telefonoz eta telegrafoz behin eta berriro errepikatu arren. Ez ziren, halere, fio eta baimena eskuan izan arte ez zen inor ere liburuaren zabalkundea egitera ausartzen, tranparen bat ote zen edo... Kalean ez zen giro. Ehiztariak, eskopetak kargatuta, «erbia» nondik agertuko zain zeuden. Asteak joan asteak etorri, iritsi da azkenean Itxaropenara zorioneko baimena hilabeteetako atzerapenaz. Espainiako geografian turismo luzea egin ondoren, gutunazal marruskatu eta zirriborratuan oraindik ere irakur zitekeen helbidea:

*Editorial Amesqueturra
Zaragoza*

Amezketakoari gertatzea ere...! Bi inprimaldi egin ziren urte berean, lehena datarik gabe, badaezpada ere eta bigarrena, lizentzia eskuratu ondoren, data eta datu guztiekin.



Sei urtean behin egiten dira oraindik ere munduan zehar nazioarteko editoreen kongresuak. Patxi Unzurrunzagak Euskal Herriaren lekukotza eraman zuen 1956an Erromara, 1962an Bartzelonara, 1968an Amsterdamera, 1979an Vienara. Nazioarteko erakundean ordezkari izendatu zuten, Euskal Herriaren bozeramaile.



Amsterdamera 1968an joateko pasaportearen eguneratzerakoan arazoak Donostiako Gobernu Zibilean sortu zitzaizkion Patxi Unzurrunzagari ustekabearen eta azken orduan: zentsurakoen aholkuz, gobernadoreak Espainiatik irteteko baimena ukatu, kongresua amaitu bitartean. Bidaiatzeko dena prest eta joan gabe agur esan behar kongresuari. Maria Goikoetxea zen Patxiren emaztea. Beronek eman zion aurre egoerari. Kongresuari ez agur eta ez adio esateko prest zegoen Maria. Gobernadoreari audientzia eskatu eta aurrez aurre aurpegiratu zion Patxi senarrari egiten zitzaion azpikeria; eta bide batez esan zion, berak bazuela arauzko pasaportearen senarrik gabe ere joango zela eta jakingo zuela nola azaldu mundu guztiko kongresisten aurrean Unzurrunzaga jauna batzarrean ez egotearen zergatia. Mariari «bizkaitarra» esaten zioten Zarautzen ezkonberritan bertaratu zenetik Markinako doinuaz hitz egiten zuelako.

Editoreen Nazioarteko Kongresua Italian ospatu zen 1956an. Unzurrunzaga-Goikoetxea senar-emazteak Kongresuak antolatutako jaialdian

Oso gogoko izan zuen Patxi Unzurrunzagak beti lagunartea. Donostian 60 eta 70eko hamarkadetan Gipuzkoako Diputazioko Bibliotekan Joxe Artetxeren inguruan hilean behin biltzen zen tertuliara nekez huts egingo zizun. Han elkartzen ziren, besteak beste, Busca Isusi, Zirikiain Gaiztarro, Valverde, Fausto Arozena, Pelay Orozko, Carlos Santamaria, Oteiza, Tellechea Idígoras... Handik bultzata argitara irten ziren ltxaropenan —sonatuenak soilik aipatzearren— Artetxeren *El abrazo de los muertos*, urteak ilunpean gordeta egon ondoren, eta Oteizaren *Quousque tandem*, zentsura eta traba guztien gainetik ausarki. Tertuliakide hauek eta beste hainbat hasi ziren, halaber, urtean bizpahiru lekutan elkartzen «La Academia Errante» izenpean, Espainiako poliziak abisuren bat igorri zien arte.



Quousque tandem, Oteizak Patxiarekin elkarlanean zentsuraren kontra mamitutako liburua



Argazki honen atzeko aldean idatzita utzi zuen Patxiak: «1962ko maiatzaren 31n egindako arrantza, lupia (5,800 kilo), atuna (5,200 kilo), txelba (6,100 kilo).»

Gerra osteko euskal argitalpenen abenturan 40, 50 eta 60ko hamarkada malkartsuetan Patxi Unzurrunzagak irmoki eutsi zion gerra aurretik eskura zuen suziri zurbilari. 70eko hamarkadarekin hasiko da euskal literaturaren loraldi berria. 1960. urtean 27 liburu plazaratu ziren euskaraz Hego Euskal Herrian; 1970.ean 100 inguru. Editorial berriak han-hemenka hasi ziren. Urte horietakoak ditugu Gordailu (1968), Lur (1969), Etor (1970), Jakin (1971), Iker (1972), Gero (1973), Elkar (1973) argitaletxe berriak. Funtsean, argitaletxe hauek denek dute kultur talde bat, joera bat, pentsamendu bat oinarri eta helburu. Euskal Herrian Patxi Unzurrunzagaren Itxaropena izan da editorial bihurtutako inprenta soil bakarra. Susperraldi berriarekin dator Itxaropena editorialaren iraungitzea. Sortu berrien zerbitzura jarriko du Itxaropenak gehienbat bere inprenta-lana eta euskal liburugintzan urte luzeetan garatutako esperientzia.



«La Academia Errante»-koekin aurreksua Zaldibiako plazan 1967an, Artetxe eta Unzurrunzaga eskuz esku

Patxi Unzurrunzaga Donostian hil zen 1984ko apirilaren 14an, emaztea, "seme-alabak, bilobak eta birbilobak inguruan zituelarik. Euskal Herriaren eta euskal kulturaren aro berriak, lankide eta adiskide askok ez bezala, ezagutu eta bizi izanaren pozaz eta ongi eginaren atsedenez joan zen. Ez zen idazlea, ez plazagizon, ez zuen gogoko protagonismoa baina Patxi Unzurrunzagari aitortu behar zaio eta eskertu gerra ondoko etenaldian euskal kultura idatziaren testigutzari eutsi izana.



Jaioko dira berriak...



Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- *Patxi Unzurrunzagaren senitartekoak*
- *Euskaltzaindiko Azkue Biblioteka*
- *José Luis Villar argazkilaria*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 1999ko abendua

Ale-kopurua: 2.000

© Euskal Autonomi Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Fotokonposizioa: Ipar, S. Coop.
Particular de Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Inprimaketa: RGM, S.A.
Padre Larramendi, 4 - 48012 Bilbao

ISBN: 84-457-1447-3 (Obra osoa)
84-457-1449-X

L.G.: BI-2.680-99

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística